

# OHARRA

Abenduaren 4rako Luiaondon, **Euskaraktibatu** lelopean, Aiaraldeko euskararen eguna prestatzen aritu gara azken hilabeteotan. **Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua**ren ekimenez eta **Aiarako Udala**ren, **Aiarako Kuadrilla**ren eta **Luiaondoko Administrazio Batzarraren** babes eta elkarlanarekin. Ekarpena eginez batu dira **Arrankudiaga-Zolloko**, **Arakaldo**ko eta **Urduñako Udalak** ere. Ekimen honetan eskualdeko beste hainbat eragile eta norbanako batu zaizkigu, ilusioz, euskara berriz ere Aiaraldeko plazaren erdigunean jarri, euskaltzaleak berriz batu, komunitatea indartu eta aktibatze gogoz.

Erronka handia izan da jai hau prestatzea eta harro gaude egindako lanaz. Publiko eta adin guztietarako eta disziplina anitz biltzen dituen programa erakargarria osatu baitugu, elkarlanetik eta elkarlanean.

Horregatik erabaki hau ere, elkarrekin eta aho batez hartzen dugu ohar hau sinatzen dugunok. Ez da erabaki erraza, zaila eta mingarria izan da hartzea, horrenbeste jende inplikatzeko duen ekimen bat izanik, baina egoerak hala behartzen gaituela ulertzen dugu.

Atzo, azaroak 29, gure eskualde osoa **eremu gorrian** sartu zen COVID izurriari dagokionez. Laster neurriak zorrotzeko aginduak iritsiko direla uste dugu. Instituzioetan baina baita herritarren artean ere kezka sumatzen da. Horri, azken egunetako euriteen ondorioz izan diren **uholdeak** (hainbat errepide moztuz eta eskualdeko mugikortasuna zailduz) zein astebururako dauden eguraldi aurreikuspenenek, ezin bestean, abenduaren 4ko jai egiteko baldintzak ematen ez direla ondorioztatzera garamatza.

Horregatik, pena handiz, baina erantzukizunez, abenduaren 4an Luiaondon ospatzekoa zen **Aiaraldeko euskararen eguna bertan behera** uzten dugu aho batez. Sustatzaile eta babesle garen entitate sinatzaileok halaber, **konpromisoa** hartzen dugu jai, prest genuen parametro eta programazioarekin, aurrerago zehaztuko dugun datan egiteko.

Bukatzekeo proiektu hau aurrera eramaten lagundu gaituzuen guztioi gure eskerrik beroenak. Gure aitortza eta esker ona azaldutako ulerkortasunagatik, erabaki honen kaltetu handienak diren profesionali: soinu teknikari, antzerki konpainia, musikari,... Data berrirako guztiokin kontaktzea espero dugu.



Gentza Alamillo  
Aiarako Alkatea

Aiaran, 2021eko azaroaren 30ean



Encina Castresana  
Aiarako Kuadrillako presidentea



Aitor Fdz. de Pinedo  
Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua